



## MEMORIA

### KULTURA 2028 PLAN ESTRATEGIKOAREN IZAPIDETZEA ETA ONARPENA

2020ko abenduaren 15ean Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak Jaurlaritzaren XII Legegintzaldirako Plan Estrategikoaren zerrenda eta plan horiek izapidetzeko prozedura onartzeko erabakia hartu zuen.

Erabaki horren arabera onartutako 16 Plan Estrategikoen artean ezarri zen Kulturaren Plan Estrategikoa ere. Une hartan, indarrean zen Kultura 2019-2022 Plana ere, 2019ko uztailean onartua eta Gobernu Kontseiluan aurkeztua, baina Gobernu Plan edo Plan Estrategiko izaerarik ez zuena.

2021eko apirilean, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Plan berria definitu eta eraikitzeke lanei ekin zien. Une hartan, oraindik Covid-19 pandemiaren erdian zegoen Euskadi, bete-betean. Aurreko hilabete guztietan, eta baita ondoren ere, kultura sektoreak jasandako astindua nabarmena izan zen, eta are beharrezkoagoa eta lagungarriagoa izan zitekeen kultura munduari garai berri baterako bulkada emango zion Plan Estrategiko bat. Helburu hori ardatz hartuta ekin zitzaion orain onartuko den Kultura 2028 Plan Estrategikoa sortzeko lanei. Lan hori, barne baliabideekin egin da, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko arduradunek egin dute. Fase ezberdinak izan ditu:

Lehenik eta behin, 2019ko Kulturaren Planaren ordura arteko jarraipen eta betetze mailaren informazioa hartu zen oinarri. Aldi berean, Covid-19 pandemiak utzi zizkigun ikasgai eta ondorioak hartu ziren oso kontutan. Hirugarrenik, Sailak kultura sektorearekin duen etengabeko harremanetik (izan eragileekin banaka, izan hauen ordezkari hartzen duten elkarte eta taldeekin) jasotako informazio, beharrian, planteamendu edota eskariak hartu ziren aintzat. Eta laugarrenik, Eusko Jaurlaritzaren erreferentziatzko dokumentuen azterketa egin zen –Gobernu Programa bereziki-, Planak hartu behar zuen norabidea dokumentu programatiko horiekin lerratua egon behar zelako, nahitaez.

Lau informazio iturri horiekin osatu zen oinarritzko diagnostia eta horrek eman zion bide Planaren lehen hezurdurari: ardatzak, zeharkako konpromisoak, lau helburu estrategikoak, jardun lerroak eta ekintzak. Hezurdura hori, 2021eko uztailean Kulturaren Euskal Kontseiluarekin partekatu zen, prozesuaren hasieratik bertatik, hezurdura horrek KEK-en onespina izan zezan. Era berean, hezurdura hori bera, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko lantalde teknikoarekin kontrastatu zen, hauen ezagutzak eta hauen lana izango baitira, neurri handian, Plan Estrategikoa burutzeko giltzarri.

Horrela ba, lehen kontraste horien ondoren, barne lanek aurrera jarraitu zuten, eta Planaren gainontzeko atalak garatzeko lanei ekin zitzaion, besteak beste, diagnosi garatua, gobernantza eredua, plangintza ekonomikoa, jarraipen eta ebaluazio sistema, adierazleak, etab.

15 hilabeteko lanaren ondoren, 2022ko uztailean, amaitu zen Planaren lehen bertsioa. Bertsio hau igo zen Tramitagunera AAAA\_PDG\_3994/22\_11 espediente zenbakiarekin. Espediente horren baitan jaso ziren, 2022ko irailean, Ekonomia eta Ogasun Saileko



Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena eta Lehendakartzako Koordinazio Zuzendaritzaren txostena. Aldi berean, 2022ko uztaila eta urria bitartean, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Plan Estrategikoa kultura munduko aditu eta erreferentziazko hainbat pertsonekin partekatu zuen, euren iritziak eta ekarpenak jasotzeko. Eta hirugarrenik, EAEko kultura politika publikoen gobernantza partekaturako erreferentziazko bi foroan eskuetan jarri zen dokumentua: HAKOBA Kultura (2023ko urtarrilaren 9an) eta Kulturaren Euskal Kontseilua (2023ko otsailaren 1ean). Bi organo hauek dokumentua ezagutu, hauen ekarpen batzuk jaso eta onartu ondoren itxi da Plan Estrategikoaren oraingo eta Gobernu Kontseilura eramango den behin betiko bertsio hau.

2022ko uztailetik 2023ko otsaila bitarte, beraz, aipatutako txostenetatik eta jasotako iritzi eta ekarpenetatik, hainbat aldaketa txertatu dira Kulturaren Plan Estrategikoan. Honakoak dira azpimarragarrienak:

Alde batetik, Kultura Plan Estrategikoaren indarraldia bera berrikusi da. Hasiera batean 2025 arteko epea finkatzen bazen ere, orain, 2028ra arteko indarraldia eman zaio Planari. Izan ere, dokumentuaren lehen erdian bereziki egiten den planteamendu teorikoak euskal erakunde publiko guztientzako markoa definitzea du xede. Hori horrela, eta kontutan izanda udalen eta foru aldundien hurrengo legealdia hastear dela eta 2027ra arte luzatuko dela, arrazoizkoa ikusi da Planaren indarraldiak legealdi hori bera estaltzea. Era beran, eta arrazoi berdinagatik, Eusko Jaurlaritzaren 2024-2028 legealdia estaltzea ere arrazoizkoa dela erabaki da, Plan Estrategikoak proposatzen duen markoa eta hainbat ekintzen burutzapena 2028ra arte luzatuko baita. Hain zuzen, Planak berak, bere printzipioen artean finkatzen du, besteak beste, kultura politika publikoen jarraitasuna; eta planaren ezaugarri bezala, zehazten da, besteak beste, ikuspegi luzekoa dela.

Bigarrenik, Lehendakartzako Koordinazio Zuzendaritzaren gomendioei jarraituz, Gobernu Programaren herri helburu eta konpromisoak berrikusi eta osatu dira marko programatikoari dagokion atalean, beharrezko izan den kasu guztietan. Aldiz, ekintzen zehaztasun eta deskribapen mailari dagokionean egindako gomendioen inguruan ebatzi da, informazio maila hori (ekintza bakoitzaren epeak, aurrekontua, inplikaturako eragile eta erakundeak, etab.) urteko ekintza planean jasotzea izango dela helburua, gaur-gaurkoz, orain onartuko den dokumentuan ezinezko egiten baita ekintza bakoitzaren zehaztasun maila hori ematea.

Bestetik, atal ekonomikoari dagokionean, Aurrekontu Zuzendaritzaren gomendioari jarraiki, zuzenketa bat txertatu da Plangintza Ekonomikoaren Atalean. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren 2021ko Inbertsio Plan berezi bati egiten zitzaion aipamena. Akats bat izaki, aipamen hori ezabatu da.

Halaber, atal ekonomikoan, 2023ko urtarrilaren 1etik EAEko 2023ko Aurrekontu Legea dagoenez indarrean, Plangintza Ekonomikoko proiektio ekonomikoa eguneratu da, 2023ko Kultura Sailburuordetzaren aurrekontu erreala jasoz (2022ko uztailako bertsioan aurreikuspen batean oinarrituta zegoen 2023ko aurrekontua).

Bestalde, ekarpen fase honetan jaso dira, baita ere, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Berdintasun Unitatearen ekarpenak. Alde batetik, hizkuntza inklusiboa bermatzeko ekarpenak, eta bestetik edukizkoak. Bigarren hauen artean daude, besteak beste, 2022ko martxoaren 3an, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Lege



berriak dakartzan berrikuntzak, hain zuzen, kultura eremua beren-beregi aipatzen dutenak. Baita ere, txertatutako hobekuntzen artean daude, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Berdintasun Planak kultura sektorerako aurreikusten dituen ekintzekin lerrokatzea, eta ebaluazio eta jarraipen sisteman, berdintasunerako lantaldeekin modu koordinatuan lan egingo dela ezartzea.

Azkenik, aipatu bezala, kultura sektoreko aditu eta erreferenteen iritzia eta ekarpenak jaso dira, eta hainbat moldaketa egin dira, bai diagnosian, bai proiektu zehatzen erreferentzietan, etab.

Horrela ba, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2021eko apirilean Kultura 2028 Plan Estrategikoaren bidea hasi ondoren, bide horretan beste mugarri bat jarriko du orain, dokumentua Gobernu Kontseiluak onar dezan proposatuz. Gobernu Kontseiluak 2020ko abenduaren 15ean Kulturaren Plan Estrategikoa Gobernu osoaren plan estrategikoen artean onartzean aurrera urrats handia eman zen kultura politikak eta kultura bera Gobernuaren politiken eta gizartearen erdigunean jartzeko bidean. Orain, konpromiso hori gauzatzera gatz Gobernu Kontseiluan Kultura 2028 Plan Estrategikoa onartzearekin. Kultura 2028 Plan Estrategikoa Gobernu Kontseiluan onartuta, Eusko Legebiltzarrerara igorriko da, eta bertan ere dagokion aurkezpena egingo da.

Dokumentuaren onarpenarekin, baina, ez da bidea amaitzen, izan ere, Plan Estrategiko hau irekia eta bizia izango da indarrean egongo den denbora guztian, kultura bizirik eta etengabeko eraldaketan eta bilakaeran dagoen gizarteko esparrua izaki.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 14an

**Andoni Iturbe Amorebieta**  
**KULTURA SAILBURUORDEA**  
**VICECONSEJERO DE CULTURA**